

Basoaren gaueko oihartzunaren ulua: urubiaII



HELBURUAK:


- Urubia herrizko zein lekutan eta noiz entzun ahal den.
- Urubiak herrian erabiltzen dituen kokaguneak ezagutzea.

MATERIALAK:

Ikerketa hau aurrera ateratzeko erabili ditugun materialak ondokoak dira:

- Noctua fitxa, SEO-Birdlife elkarteak argitaratutakoa.
- Bozgoragailua,
- Urubiaren soinua (mugikorra),
- Boligrafoa,
- Frontala (argi-iturria),
- Argazki kamara.

DATUAK ETA GRAFIKOAK:



IRADOKIZUNAK

Ikerketa honetan kontuan hartu behar dira:

Otsailaren bukaeran joan behar da, entzun nahi baduzu.

Puntu gehiago aztertu behar ditugu herrian zehar.

Gauean joan.

Ixiltasuna mantentzea hobe.

SARRERA:

Otsagabiko eskolan herrian urubiak non dauden aztertzen ari gara, oso proiektu interesgarria delako. Baina bereziki Biologia eta Geologia ikasgaien animalia ornodunak ikasten ari garelako

IKERKETAREN KOKAGUNEAK

Ikerketa Otsagabiako herria egin dugun Nafarroako Zaraitzuko ibarrean. Hasieran hiru puntu aukeratu genituen:

- 1.puntua:Otsagabia herriko ur deposituak.
- 2.puntua: Otsagabiko eliza.
- 3.puntua: Zatalarranas.
- 4.puntua: Elkarteak

Bigarren egunean berri bat aukeratu genuen, ingurune horretan entzuten ari zelako:



ESPERIMENTUAREN PROZEDURA

Ikerketa egitera atera garen gau bakoitzean, ondoko datu orokorrak bildu ditugu: data, laino portzentaia, ilargiaren aldia eta orduak.

- Estazio bakoitzean ikerketa prozedura zehatza garatu dugu:
- Hasiera eta bukaerako ordua apuntatu.
- Estazioa kokatuta dagoen ekosistema identifikatu.
- Talde bakoitzak leku batera joan zen. 5 minutuz ixilik, entzuten egon.
- Urubiaren apeuaren soinua jarri bozgoragailuan, minutu batez.
- Berririo 5 minutu egon hasierako lekuan entzuten.

ONDORIOAK:

Aurten ez dugu entzun eta iaz entzun zuten.

Otsailaren bukaeran eta martxoaren hasieran urubia entzuteko hobeago da otsailaren hasieran baino.

Urubiaren erantzunak apeuarekin entzutea errazago da.

Herriko gazte batek konfirmatu zigun egun hauetan urubia entzun zuela: Martxoak 14an eta martxoak 24an. Beraz, kabia ez du jarri, bikotea aurkitu ez duelako eta elizara arra hurbiltzen da bikotea aurkitzeko.



Ximel,Ander, Jare eta Julen

